

Bizkaiko Emakumeen Asoziazionismoa: Funtzionamendua, Baliabideak, Direktorioa

1. SARRERA

2. EMAKUMEEN ELKARTEEN EZAUGARRI OROKORRAK

- 2.1. Kokalekua
- 2.2. Emakumeen batez besteko adina

3. EMAKUMEEN ELKARTEEN SORRERA ETA HELBURUAK

- 3.1. Emakumeen elkarten sorrera
- 3.2. Emakumeen elkarten helburuak

4. EMAKUMEEN ELKARTEEN BALIABIDEAK

- 4.1. Elkartearen egoitza
- 4.2. Baliabide materialak
- 4.3. Giza baliabideak
- 4.4. Ekonomi baliabideak
 - 4.4.1. Aurrekontua
 - 4.4.2. Finantzabideak
 - 4.4.3. Dirulaguntzak

5. JARDUTE EREMUAK

- 5.1. Elkartearen jardueren lurralde-esparrua
- 5.2. Elkartearen jardueren gai-esparrua.

6. BIZKAIKO EMAKUME TALDEEN JARDUNBIDEA

- 6.1. Bilera arruntak eta batzarrak
- 6.2. Elkarteen jarduerak
- 6.3. Euskararen erabilera

7. KANPOKO HARREMANAK

- 7.1. Beste elkarte batzuekiko harremanak
- 7.2. Herri erakundeekiko harremanak

8. AUKERA BERDINTASUNAREN ATALA ETA GIZON NAHIZ EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA LANTZEKO FORU PLANA

- 8.1. Aukera Berdintasuna lantzeko Atala eta Genero politikak
- 8.2. Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna lantzeko Foru Plana eta Genero politikak Bizkaian
- 8.3. Iradokizunak

9. ONDORIOAK

ERANSKINAK

1. Sarrera

Bizkaiko Emakumeen Elkarteei buruzko txostenak bi helburu nagusi ditu: alde batetik, lurralde historiko honetako emakumeen elkarteen datutegia gaurkotzea, eta, bestetik, elkarte horietako jardunbide, baliabide, jarduera eta iradokizunen gaineko datuak biltzea, oso jakingarriak izan baitaitezke, politika zehatzak abian jartzeko Bizkaian.

Txostenak oinarri du Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen talde guztietara (orotara, 198 elkartetara) bidali zen galdetegian. Honako agiri hauek bidali ziren: aurkezpen gutuna, galdetegiaren argibideak eta helburuak azaltzeko, galdetegiaren ale bi, euskaraz eta gaztelaniaz, eta seiludun gutunazala, ikerketa taldearen helbidea idatzita zuena, hamabost bat egunean erantzuna jaso ahal izateko. Hiru bidalketa egin ziren, 2000ko urritik azarora, eta %28,78k erantzun zion galdetegiari; hau da, berrogeita hamazazpi galdetegi jaso genituen guztira

Hala ere, erantzun-maila hori, berrogeita hamarretik beherakoa, oso aurreikusgarria da hau bezalako ikerlanetan. Elkarteei eta gizarte kapitalari loturiko ikerketetan egiaztatu den bezala, legez inskribaturik dauden elkarten kopurua eta jardunean dabiltzanena ez datoz bat. Elkarte asko desegin dira, baina, gehienetan, desegite hori ez dute gauzatzen legezko bideei jarraiki; beste elkarte batzuk une zehatz eta helburu jakin batzuk lortzeko erabiltzen dira eta, funtsean, ez dira jardunean ibiltzen horiek amaitu ostean. Oro har, erakundeekiko harreman iraunkorra dutenek


Txostena hainbat ataletan banaturik dago, eta Bizkaiko emakumeen elkarten alderdi nagusi eta bereizgarriak aletzen ditu. Lehen atal bietan, galdetegia egindako elkarten azalpen orokorra eskaintzen da. Atal horretan, honako alderdi hauei erreparatu zaie: kideen adina, elkartearen kokalekua, eta erabateko jarduteko helburuak. Aurrerago, laugarren atalean, elkarten baliabide material eta giza baliabideen azterketa xeheagoa dugu, eta horren ostean, jardueraren esparrua (5. atala) eta barne jardunbidea (6. atala) aztertzen dira. Gainera, txostenaren atal bat eskaini zaio elkarteek beste elkarte batzuekin eta herri erakundeekin dituzten harremanak aztertzeari; azkenean, Aukera Berdintasunaren Atalarekin zer-nolako lotura duten aztertze eta Berdintasuna lantzeko Foru Plan onartu berriaren inguruko iritzia eta iradokizunak jasotzeko beren-beregiko atala aurkituko dugu. Aurrekoari erantsirik, lurraldean izena emanda duten elkarte guztien zerrenda eta ikerlan honetan lagundu duten elkarten izendegi gaurkotua ageri da.

2. Emakumeen Elkarten Ezaugarri Orokorrak

Txostenean ikusi ahal izango dugun bezala, galdetegia egindako emakumeen taldeek hainbat ezaugarri dituzte. Kokalekuak eta elkarteetako kide diren emakumeen batez besteko adinak neurri handi batean baldintzatzen dute zein elkarte mota erabiltzen den eta hark egiten dituen jarduerak.

2.1. Kokalekua

Sarritan, emakumeen taldeek hainbat arazori erantzuteko eta jarduteko modu bat edo beste izaten dute kokalekuaren arabera. Horrela, galdetegia egindako elkarte guztien %31,6ren egoitza lurralde historikoko hiriburuan dago, Bilbon alegia.



1. irudia. Elkarten kokalekua

2.2. Elkarteko kideen batez besteko adina

Galdetegia egindako elkartetako kide diren emakumeek ezaugarri asko dituzte, elkartea zein den. Zalantza barik, adina oso bereizgarri behinena da, eta guztiz baldintzatzen du elkartearen izaera eta jarduerak. Oro har, esan daiteke Bizkaiko emakumeen taldeak emakume helduek osatzen dutela, 36 urtetik gorakoak.

Ildo horretan, elkartetako kide diren emakumeen bostena, besterik ez, 35 urtetik beherakoa da; zehatzago esanda, %14,47k dauka 26 eta 35 urte bitartean, eta %5,11 dira 25 urtetik beherakoak.

Elkarteko kideen b.b.ko adina	%
25 urtetik beherakoak	5,11
26 eta 35 urte bitartekoak	14,47
35 eta 50 urte bitartekoak	38,79
50 eta 65 urte bitartekoak	28,33
65 urtetik gorakoak	13,30
GUZTIRA	100

1. taula. Elkartetako emakumeen batez besteko adina

1. taulan ikusi ahal den bezala, ehuneko handienak 36 urtetik gorakoetan daude, eta 36 eta 65 urte bitarteko emakumeek (%80,42), gehienbat, osatzen dute Bizkaiko elkarteen ehuna.

3. Emakumeen Elkarteen Sorrera Eta Helburuak

Galdetegia egindako emakumeen elkarteak hainbat arrazoi direla tarteko eta helburu nahiz jarduera zehatzei ekiteko eratu ziren. Emakumeen elkartegintza aztertzeko, funtsezkoak ditugu, batetik, elkartea sortzera bultzatu zuten arrazoiak, eta, bestetik, elkartearen jardunbidea eta jarduerak zehazten dituzten helburuak.

3.1. Emakumeen elkarteen sorrera

Galdetegia egindako emakumeen elkarte gehienak emakumeen berariazko premiei erantzuteko eta emakumeen interesak eta eskubideak babesteko sortu ziren (%47,48). Beste batzuetan, elkarteak aurreko jarduerari segida emateko sortu dira, edo ikastaro zein jardunaldiren bat egin ostean, parte-hartzaileek elkartzea erabaki dutelako (%35,1). Badira beste batzuk, lehen beste talde batean zeuden emakumeek eratu dituztenak (%15,8).

Sorreraren arrazoa	%
Emakumeen premia eta interesei eutsi eta eskubideak aldarrikatzea	47,4
Erakundeek antolaturiko ikastaro edo jardunaldiak	35,1
Lehendiko taldeak (ikasleak, lagunak, sindikatua)	15,8
Ez daki/ez du erantzun	1,8
65 urtetik gorakoak	13,30
GUZTIRA	100

2. taula. Bizkaiko emakumeen elkarten sorrera.

Ildo horretan, emakumeen berriazko interesak babestu eta eskubideak aldarrikatzeko sortu ziren elkarten ezaugarriak oso desberdinak dira. Elkarteek askotan argudiatzen duten arrazoietakoa bat ondokoa dugu: emakumeen talderik ez izatea udalerrian edo handik hurbil, eta, beraz, bertako emakumeen elkartzeko premiei eta bestelakoei erantzuteko sortu behar da elkarteak. Beste batzuetan, beharizan horiek askoz zehatzagoak dira, eta askotan aipatzen dute aisialdia betetzeko premia, edo seme-alaba helduak dituzten emakumeen kultur premiak; behin baino gehiagotan, "habia hutsaren sindromea" ere aipatu da, zenbait elkarteren sorrera azaltzeko. Beste alde batetik, elkarte asko sortu dira gizarteko emakumeen talde jakin batzuk batu eta haien interesen alde jarduteko asmoz; arlo horretakoak dira emakume alargunen elkarteak, guraso bakarreko familien emakumeen elkarteak, profesional liberalen elkarteak, emakume gazteenak, emakume mastektomizatuenak... Gainera, batzuetan ere elkarteak sortu dira antolakunde publiko eta pribatuek emakumei eskaintzen dizkieten zerbitzuen hutsuneak betetzeko, eta horrelakoetan, laguntza-elkarteak dira, batez ere, lege edo psikologi aholkularitzakoak, edota tratu txarrak saihesteko ahaleginean dabiltzanak. Azkenik, emakumeen elkarte batzuk sortu dira emakumeen gaineko ikerketan sakontzeko hainbat arlotan, berriazko premia horiek gehiago zehaztearren.

Bigarrenez, elkarte asko sortu dira ikastaro edo jardunaldi baten ostean. Horietan, parte-hartzaileek elkar ezagutu, eta helburu zehatzei ekiteko elkarteak eratzen dute. Askotan gertatu izan da hori Emakumea Sustatzeko Etxeek antolaturiko ikastaroen ostean, helburu batzuei eusteko elkarte batzuk sortu dira eta. Ildo horretan, beste elkarte batzuk sortu dira antzerki-ikastaroak egin eta gero; horrelakoetan, ingurunekeo kultur bizimoduari eragiteko emakumeen antzerki-taldeak sortu dira. Elkarten zerranda hori beste batzuekin osatzen da: parrokiek, Familia Plangintzako Etxeek edo Emakundeek antolaturiko ikastaroetatik eratorriak.

Azkenik, badira beste elkarte batzuk lehendik elkar ezagutzen zuten emakumeek eratzen dituztenak. Elkarteak eratu aurretik, emakume horiek lagun-talde, ikasleen elkarte edota sindikatu bateko kideak ziren. Horrela, une batean, elkarte independente bat sortzea erabaki zuten, lehengoz besteko helburu eta jarduerari lotzeko.

3.2. Emakumeen elkarten helburuak

Galdetegia egindako emakumeen elkarten helburu nagusietan, alde handia dago batetik bestera. Alabaina, esan daiteke, oro har, emakumeen talde guztiek helburu dutela emakumeen bizi-baldintzak hobetu eta emakumeak hainbat arlotan sustatzea, baita gizarte kultur eta aisialdi jarduerak eskaintzea ere, edota lan, psikologi eta lege esparruko laguntza ematea, eta guztiek prestakuntza jarduerak garatzen dituzte sustapena eta gizarteratzea eragingarriak izan daitezkeen.

Helburuak	%
Emakumeak sustatzea hainbat arlotan	36,8
Emakumeentzako gizarte eta kultur jarduerak sustatzea	21,1
Emakumeentzako lege, psikologi edo lan esparruko laguntza eskaintzea	19,3
Emakumeen prestakuntza	19,3
Emakumeen eskubideak aldarrikatzea	3,5
GUZTIRA	100

3. taula. Bizkaiko emakumeen elkarten helburu nagusiak.

Galdetegia egindako elkarten herenak baino gehiagok adierazi du helburu nagusia duela emakumeak sustatzea hainbat arlotan. Horren arabera, elkarteek xede dute emakumeen gizarte eta politika arloko parte-hartzea sustatzea, emakumeen eta emakumeen gaineko ikerlanak bultzatzea, landa-eremuko emakumeen baldintzak hobetzea, emakumeen parte-hartzea ahalbidetzea herriotako kultur eta gizarte arloetan, aukera berdintasuna lantzea hezkuntza esparruan, indarkeria baztertzeko, eta, azken batean, emakumeen elkartegintza bermatzea, hiritar gisako garapen osoari eusteko.

Bigarren lekuan, gizarte eta kultur jarduerak egitea dugu elkarten helburu nagusia (%21,1). Ildo horretan, helburuak zehatzak dira batzuetan (elkarteko kideen kultur maila hobetzea), bitartekoak beste batzuetan (alde bateko emakumeek kulturarako modua izan dezaten bermatzea), edo orokorrak besteetan (alde bateko lagun guztien kultur garapena ahalbidetzea). Emakumeentzako jarduerak horiek askotan egiten dira etxeko giroaren bakartasunari ihes egin eta emakumeen buruestima bilatzeko.

Elkarte askok emakumeentzako hainbat arlotako laguntza eskaintzea dute helburu (%19,3). Horietan, emakume guztientzako edo arazo zehatzak dituzten emakumeentzako psikologi edo lege laguntza eskaintzen duten elkarteak nagusi dira. Badira beste batzuk lanbide, prestakuntza edo osasun orientabidea eskaintzen dutenak.

Emakumeen prestakuntza jarduerak garrantzitsuak dira (%19,3) emakumeen elkarten helburuetan. Horri jarraiki, elkarte askok helburu dute ikastaroak antolatzea, emakumeak hainbat arlotan gaitzeko asmoz.

Azkenik, emakumeen elkarte batzuek helburu nagusia dute emakumeen eskubideak aldarrikatzea. Talde horiek, oro har, beste talde eta arazo zehatzei eta ageriko kontzientzi feministari lotu ohi zaizkie.

4. Emakumeen Elkarten Baliabideak

Galdetegia egindako emakumeen elkarteek hainbat egoera dituzte baliabideei dagokienez. Lehendabizi, elkarten arteko aldeak oinarritzen dira, alde batetik, kideak batzeko lokalik dutenez eta hori zein egoeratan dagoen, eta, bestetik, elkarten jarduerak errazten, eta batzuetan baldintzatzen, dituzten baliabideetarako modurik duten, hala nola, telefonoa, ordenagailua, fotokopiagailua eta abar eskuratzeko modurik.

Hala ere, emakumeen elkarteetako alderdirik garrantzikoena giza baliabideen arloa da. Horri dagokionez, nabarmena da boluntarioen zeregina, elkarte gehienek bihotza baitira; bestalde, kasu gutxitan bada ere, kontratupeko langileak ere aritzen dira elkarteetan, helburuetako bat beren beregi garatzeko.

4.1. Elkartearen egoitza

Jarduerak prestatzeko, eta batzuetan gozatzeko, bilgunea oso elementu garrantzizkoa da elkarte baten jardunean. Galdetegia egindako elkarteek emandako erantzunen arabera, argi eta garbi esan behar dugu sekulako aldeak daudela Bizkaiko emakumeen elkarteetan.

Erantzunetan oinarri harturik, antolakunde pribatu edo publiko batek, edo norbanako batek lagatako lokala baliatzen du galdetegia egindako elkarteetan erdiak baino gehiagok. Elkarteetan bostenak alokaturiko lokala baliatzen du emakumeen elkarteak bakarrik erabiltzeko edo beste elkarte batekin batera erabiltzeko. Elkarteetan %8,8k baino ez dute jabetzapeko lokala edo besterekin elkarbanatua. Premien atalean, azpimarratu behar dugu elkarteetan %10,5ek oraindik ere ez duela lokalik bilerak eta/edo jarduerak egiteko.


Elkartearen egoitza	%
Lagatako lokala (erakunde publiko edo pribatu batek, edo norbanako batek utzita)	52,7
Alokaturiko lokala	21
Ez dauka lokalik	10,5
Jabetzapeko lokala	8,8
Besterik	3,5
Ez daki/ez du erantzun	3,5
GUZTIRA	100

4. taula. Elkartearen egoitza.

4. taularen arabera, galdetegia egindako elkarteetan bostenak baino apur bat gehiagok baliatzen du alokaturiko lokala eta horixe erabiltzen dute elkartearen egoitza moduan. Aukera zabalena da lokal hori beste elkarte batzuekin banatzea; horrela, lokal alokatua duten elkarteetan %16,67k soilik daukate erabilera eskusiboko lokala.

Jabetzapeko lokala duten elkarteetan kopurua askoz txikiagoa da (%8,8), eta, aurrekoan bezala, lokalak erabilera eskusiboa du (guztizkoaren %5,3) edo banatua (guztizkoaren %3,5).

Arestian esan bezala, nagusi dira antolakunde batek edo norbanako batek lagatako lokala baliatzen duten elkarteak. Gehienetan, tokiko udalak lagatzen du lokala, baina kasu bakan batzuetan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gizarte Laguntzarako Foru Erakundeak, batzokiak, tokiko parrokiak edo Bilbao Bizkaia Kutxa aurrezki-kutxak laga dituzte lokalak. Funtsean, lokalak udalekoak dira, eta kultur etxe edo auzo etxeetan daude, eta sarritan beste elkarte batzuekin elkarbanatu beharreko guneak dira.



2 irudia. Elkarteetako lokalak ahalbidetzen dizkieten erakundeak.

4.2. Baliabide materialak

Baliabide materialei dagokienez, premiak gero eta agerikoagoak dira. Esan gabe doa baliabide materialek elkarteetan jarduerak eta jardunbidea bera hein handi batean ahalbidetu eta baldintzatzen dituela; datuen arabera, ordea, Bizkaiko emakumeen elkarteetan baliabide materialak urriak dira, eta, guztira, elkarteetan erdiak baino gutxiagok ditu eskura.

Baliabidea	%
Telefonoa	45,6
Ordenagailua	33,3
Inprimagailua	33,3
Faxa	22,8
Fotokopiagailua	8,8
Internet	3,5
Ez daki/ez du erantzun	8,8
GUZTIRA	100

5. taula. Emakumeen taldeen baliabide materialak.


Baliabide arruntena telefonoa da, baina galdetegia egindako elkarteetan %45,6k dute telefonoa; horrek esan gura gura du elkarte gehienetan kideen etxeko telefonoak erabili behar direla jarduerak antolatu eta garatzeko.

Beste alde batetik, elkarteetan herenak-edo badauzka ordenagailu eta inprimagailua, eta kasuren bakan batean, idazmakina erabiltzen da aurrekoen ordean. Baliabide hori gero eta beharrezkoagoa dute elkarteek, oroitza-txostenak, eskabideak, gutunak eta prentsa-oharrak idatzi ahal izateko, baina oso urria da oraindik Bizkaiko emakumeen elkarteetan. Ildo horri jarraiki, emakumeen elkarteetan %12,3k bakarrik dauka fotokopiagailua.

Komunikazioen esparruan, telefonoaren erabilera arrunta alde batera utzita, fax eta interneterako lotura urri-urriak dira. Hain zuzen ere, elkarteetan %22,8k dauka faxa eta %8,8k interneterako lotura.

4.3. Giza baliabideak

Galdetegia egindako elkarte gehienetan (%86), ez dago elkarteetan zeregin sariturik egiten duen pertsonarik. Beraz, elkarte guztien %14an, ordainsaria jasotzen duten pertsonak daude, betiere, bost baino gutxiago. Oro har, administrazio-lanetan dabilenak edo gizarte-kultur suspertzaileek jasotzen dute ordainsaria. Hala ere, prestakuntzan diharduten elkarte batzuek ordainsaridun irakasleak txertatzen dituzte atal honetan, horien jarduerak eta elkartearekiko harremana iraunkorra baita.



3. irudia. Ordainsaria jasotzen duten pertsonak elkartean.

Funtsean, boluntarioek egiten dituzte elkarte gehienek jarduerak, baina boluntarioen kopurua aldatzen da elkarte batetik bestera. 6. taulako datuek adierazten duten legez, galdetegia egindako elkartean erdiak baino gehiagok (%61,4) hamar boluntario baino gutxiago ditu, elkartean %26,3k hamaika eta hogeitarteko boluntarioak dituzte, eta %8,8k hogeitarteko boluntario baino gehiago. Jasotako datuetan, laurogei lagunekoko elkarte bat dugu boluntario gehien dituen.

Boluntarioen kopurua	%
10 baino gutxiago	61,4
11 eta 20 bitartean	26,3
20 baino gehiago	8,8
Ez daki/ez du erantzun	3,5
GUZTIRA	100

6. taula. Boluntarioen kopurua emakumeen elkarteetan.

4.4. Ekonomi baliabideak.

Elkarte baten ekonomi baliabideak, zalantzarik gabe, alderdi garrantzitsuenetakoak dira, elkartearen jarduerak eta helburu horien betetze-maila baldintzatuko baitute. Elkartean aurrekontuak eta finantziabideak hamaika dira, hurrengo atalean aztertuta ahal izango dugun bezala.

4.4.1. Aurrekontua

Elkarte baten aurrekontua taldearen jardute-ahalmen eta elkarteak gara ditzakeen jardueren adierazle ona da. Galdetegia egindako elkarteek alde handiak dituzte 2000ko aurrekontuari dagokionez, 7. taulan adierazitakoaren arabera.

Galdetegia egindako elkartean ia erdiak 1.000.000 pezetatik gorako aurrekontua baliatu du 2000. urtean. Elkarte batek ere ez du eskura izan zazpi milioitik gorako aurrekonturik, eta elkarte gehienek milioi bat eta hiru milioi artetako erabili du. Gainera, oso kasu gutxitan gainditu da zenbateko hori.

Aurrekontua	%
500.000 pta. baino gutxiago	21,8
500.001 eta 1.000.000 pta. artean	12,7
1.000.000 pta. baino gehiago	49,1
Ez daki/ez du erantzun	16,4
GUZTIRA	100

7. taula. Elkarteen aurrekontua 2000. urtean.

Nolanahi ere, elkarteen herenak baino zerbait gehiagok baliatu du 1.000.000 pezetatik beherako aurrekontua, eta bostehun milatik beherakoa %21,8k.

4.4.2. Finantzabideak

Galdetegia egindako elkarreek hainbat etorbidetatik jasotzen dituzte ekonomi baliabideak, hala nola, kideen kuotak, norbanakoen eta erakunde pribatuen ekarpenak, erakunde publikoen dirulaguntzak, jarduerak egiteagatiko etekina, eta abar.

Diru-sarreraren etorbide nagusia erakunde publikoek emandako dirulaguntzak dira. Ildo horretan, galdetegia egindako elkarteen %89,5ek jaso dute inoiz erakunde publikoren baten dirulaguntzarik. Era berean, elkarteko kideen ekarpenak oso diru-iturri garrantzizkoa da elkarteen %87,7an. Elkarteen %86an, kideek hileko, hiruhileko edo urteko bazkidetza-kuota ordaindu behar dute.

Norbanakoen eta erakunde pribatuen ekarpenak askoz urriagoak dira, eta galdetegia egindako elkarteen %10,5ek besterik ez dituzte jasotzen. Gainera, elkarreek egindako jarduerak etekina sor dezakete askotan; hala gertatzen da galdetegia egindako elkarteen %29,8k egiten dituzten jardueretan.

Baliabide-etorbidea	%
Dirulaguntza publikoak	89,5
Bazkideen kuotak	87,7
Jarduerak	29,8
Norbanakoen ekarpenak	10,5
Beste batzuk	5,3

8. taula. Elkarteen diru-etorbide nagusiak.

4.4.3. Dirulaguntzak

Aurreko atalean esan dugun bezala, erakunde publikoen dirulaguntzak diru-sarreraren etorbide behinenak dira elkarte askorentzat. Elkarte gehienek jaso dute inoiz erakunderen baten dirulaguntzarik. Arlo horretan, finantzabidea ematen duen erakunde nagusia dugu Emakunde, galdetegia egindako elkarteentzen %82,5ek adierazi baitigu erakunde horren dirulaguntzarik jaso duela inoiz. Beste alde batetik, elkarteentzen %75,4k jaso dituzte tokian tokiko udalaren dirulaguntzak. Aurrekoez gain, elkarteentzen erdiak jaso du inoiz Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzarik.

Neurri txikiagoan izanik ere, beste erakunde batzuek finantzatu dituzte noizean behin elkarteentzen egindako jarduerak. Hortaz, elkarteentzen %19,3k jaso du inoiz Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarik; elkarteentzen %5,3k jaso du estatuko gobernuaren dirulaguntzaren bat; eta 55,3k Europako Batasunarena.

Diruz lagundutako jarduerak	%
Prestakuntza jarduerak (ikastaroak, hitzaldiak...)	49,1
Gizarte eta kultur jarduerak	19,3
Azpiegitura	10,5
Beste batzuk	10,5
Aisialdi jarduerak (egonaldiak, txangoak...)	1,8
Ez daki/ez du erantzun	8,8
GUZTIRA	100

9. taula. Dirulaguntza publikoak zein jardueratan erabiltzen diren.

Elkarteentzen jarduerak batzuk edo beste batzuk garatzeko baliatzen dituzte dirulaguntzak. Elkarteentzen ia erdiak (%49,1ek) prestakuntzari loturiko jarduerak egiteko erabiltzen dituzte dirulaguntzak; hala, ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak eta beste antolatzen dituzte. Elkarteentzen %19,3k gizarte eta kultur jarduerak garatzeko erabiltzen dituzte dirulaguntzak, eta %10,5ek dirulaguntza baliatzen dute azpiegituran inbertitzeko. Elkarteentzen %1,8k bakarrik erabiltzen dituzten dirulaguntza publikoak aisialdiari loturiko jarduerak egiteko, besteak beste, txangoak, egonaldiak, bazkariak...

5. Jardute Eremuak

5.1. Elkartearen jardueren lurralde-esparrua.

Galdetegia egindako elkarte gehienen esanetan, jardueren lurralde-esparrua udalerria da (%42,1) edo ondoz ondoko udalerrri batzuk (%8,8). Auzuneetan jarduten duten elkarteek ehuneko txikiagoa dute (%14), eta oso kasu bakaretan jarduten dute lurraldean (%15,8), edo autonomia erkidegoan (%7). Galdetegia egindako elkarte bakar batek ere ez digu erantzun estatuan edo European jarduten duela bereziki, baina elkarte horien %7k nazioartean jarduten du.

Jardute-esparru nagusia	%
Auzunea	14
Udalerrria-zenbait udalerrri	50,9
Lurraldea	15,8
Autonomia erkidegoa	7
Nazioartea	7
Ez daki/ez du erantzun	5,3
GUZTIRA	100

10. taula. Elkarteen jardueraren lurralde-esparrua.

5.2. Elkartearen jardueren gai-esparrua.

Bizkaiko emakumeen taldeen elkarteek kultura jorratzen dute, batik bat. Horixe adierazi digute galdetegia egindako elkarteen %49,1ek. Elkarte horiek helburu nagusia dute ikastaroak eta gizarte-kultur jarduerak antolatzea, bai elkarteko bazkideentzat, bai beste emakumeentzat.

Jarduera-esparrua	%
Kultura	49,1
Esku-lanak eta eskulangintza	15,8
Osasuna	12,3
Aisialdia	10,5
Hezkuntza	10,5
Gizarte laguntza	8,8
Ideologia arloa	7,0
Kirolak	5,3
Komunikazioa	5,3
Beste batzuk	3,6
Ez daki/ez du erantzun	5,3
GUZTIRA	100

11. taula. Elkarteen jardueraren gai-esparrua.

Bestalde, esku-lanak eta eskulangintza (%15,8), osasuna (%12,3), hezkuntza (%10,5) edo aisialdiko jarduerak (%10,5) lantzen dituzten elkarteak ditugu. Harrigarria bada ere, elkarte guztien %8,8k bakarrik garatzen dituzte gizarte-laguntzako jarduerak (elkarteak eratzeko arrazoi nagusietako bat izan arren), eta 7k garatzen dituzte ideologia arloko jarduerak. Are gutxiago dira kirol arloan jarduten dutenak (%5,3), komunikazio arloan (%5,3) nazioarteko lankidetzan (%1,8) edo ekonomi ekoizpenean (%1,8), eta galdetegia egindako elkarte bakar batek ere ez du lan egiten ingurumen edo erlijio arloetan.

6. Bizkaiko emakumeen elkarten jardunbidea

6.1. Bilera arruntak eta batzarrak.

Jardunbide arruntari lotzeko, galdetegia egindako emakumeen elkarteetako kideek aldizkako bilera egiten dituzte. Kide horiek elkarteko boluntario iraunkorrak dira.

Bilera arrunten maiztasuna	%
Hainbat bider hilean	63,2
Hilean behin	22,8
Hiruhilean behin	5,2
Urtean behin	1,8
Maiztasuna zehaztu barik	3,5
Ez daki/ez du erantzun	3,5
GUZTIRA	100

12. taula. Elkarten bilera arrunten maiztasuna.

Bileren maiztasuna ez da bat bera elkarte guztietan, baina elkarten %86k diote kideak hilean behin biltzen direla, gutxienez, eta erdiak baino gehiagok, elkarte guztien %63,2k, hain zuzen ere, hilean batzuetan biltzen direla. 12. taulak adierazten duena kontuan hartuta, elkarten %3,5en bilerak maiztasuna zehaztu barik egiten dira. Hortaz, elkarte gehienak aldizkako prozedura bati heltzen diote, jarduera iraunkorrari eutsi ahal izateko. Gutxi batzuk, elkarten %5,3, hiruhilean behin biltzen da eta %1,8 urtean behin.

Oro har, galdetegia egindako elkarten 52,6ren iritziz, kideek oso sarritan parte-hartzen dute elkarteak antolaturiko jardueretan; elkarten %36,8ren iritziz, sarritan parte hartzen dute; eta elkarten %7ren arabera, gutxitan parte hartzen dute kideek.

Beste alde batetik, galdetegia egindako elkarte gehienetan (%87,7an) kide guztientzat irekitako batzarrak egiten dira. Batzarrak egiteko maiztasuna, hala ere, aldakorra da elkarterik elkarte, beheko taulan azter daitekeen moduan.

Batzarren maiztasuna	%
Hainbat bider hilean	12,3
Hilean behin	8,8
Hiruhilean behin	7,0
Seihilean behin	7,0
Urtean behin	40,4
Maiztasuna zehaztu barik	8,8
Ez daki/ez du erantzun	3,4
GUZTIRA	87,7

13. taula. Elkarten batzarren maiztasuna.

Elkarte gehienek batzar nagusiak urtean behin egiten dira, hain zuzen ere, galdetegia egindako elkarte guztien %40,4an. Zenbateko hori batzarrak egiten dituzten elkarte guztien %46,07koa da. Gainera, elkarte batzuek hiruhileko edo seihileko batzarrak egiten dituzte, eta %8,8k aldizkakotasunez bai, baina maiztasuna zehaztu barik egiten dituzten batzarrak. Nolanahi ere, harrizkoa da oso elkarte guztien %21,1ek batzar nagusia egitea hilean behin edo batzuetan, maiztasuna kontuan hartuta, bilera arruntak bezain maiz egin behar baituzte.

6.2. Elkarten jarduerak.

Emakumeen elkarten jarduerak oso bestelakoak dira elkarterik elkarte. Oro har, elkarteek jarduera asko eta mota askotakoak garatzen dituzte. Dirulaguntzei eskainitako atalean ikusi genuen legez, emakumeen jardueran gailentzen da prestakuntza arloko ikastaroen antolaketa; hain zuzen ere, galdetegia egindako elkarten %61,4k denbora eskaintzen diote ikastaroak antolatzeko jarduera horri.

Elkarten jarduerak	%
Prestakuntza ikastaroak	12,3
Gizarte eta kultur jarduerak	8,8
Hitzaldiak, eztabaidak	7,0
Egonaldiak, txangoak	7,0
Urtean behin	40,4
Maiztasuna zehaztu barik	8,8
Ez daki/ez du erantzun	3,4
GUZTIRA	87,7

14. taula. Elkarten jarduerak

Gainera, 14. taulak adierazten duena kontuan hartuta, elkarten %43,9k gizarte-kultur jarduerak antolatzen dituzte. Elkarten %40,4k eztabaida-saioak eta hitzaldiak antolatzen dituzte aldizka, eta heren batek, %33,3k asialdiari loturiko jarduerak, hala nola, egonaldiak edo txangoak, antolatzen dituzte gehienbat.

6.3. Euskararen erabilera.

Elkarteen jardunbidean aintzat hartu beharreko beste alderdi bat dugu komunikazioan erabili ohi duten hizkuntza. Antza denez, gaztelania da sarrien erabiltzen den hizkuntza, eta bakarria elkarteen %45,6an. Hala ere, elkarte batzuek (%12,3k) diote kideek maiz erabiltzen dutela euskara komunikatzeko, eta %36,8k baino gehiagok batzuetan erabiltzen dutela. Ildo horretan, oso bitxia da elkarreetan sarritan erabiltzea euskara eguneroko jardunean eta bidalitako galdetegiaren %5,3 besterik ez bete izana euskaraz.

Euskararen erabilera	%
Sarritan	12,3
Batzuetan	36,8
Inoiz ez	45,6
Ez daki/ez du erantzun	5,3
GUZTIRA	100

15. taula. Euskararen erabilera elkarreetako kideen arteko harremanetan.

Elkarte batzuek idatzizko eta ahozko euskararen erabilera bereizten dute, eta hainbat egoera aipatzen dituzte: alde batetik, elkarte batzuetako kideek idatzizko euskara erabiltzen dute era formalean, gutunak eta komunikazioak bidaltzen dituztenetan, baina horrek ez du ispilurik ahozko jardunean. Beste alde batetik, elkarte batzuetako kideek, batez ere 45 urtetik gorako emakumeek osaturiko elkarreetakoek euskara erabiltzen dute ahozko jardunean, baina sekula ez idatzizkoan. Euskara komunikatzeko hizkuntza gisa erabili ohi den elkarreak tamaina ertaineko herri euskaldunetan daude, esaterako Bermeo edo Markinan. Elkarte horietako bakar bat Bilbon dago, eta kideen gaztetasuna du ezaugarri, guzti-guztiak 35 urtetik beherakoak baitira.

7. Kanpoko harremanak

Emakumeen elkarteak osatzen dituzten taldeen arteko harremanak eta esperientziak trukatu, eta iturri horretatik edanez aberastu da emakumeen elkartegintza. Horrela, emakumeen elkartegintza parte-hartzailea da eta taldeen arteko loturei eusten die: elkarteek batera hartzen dute parte jardueretan antzeko beste elkarte batzuekin, eta hurbileko esparruko erakundeekiko harremanak ere lantzen dituzte.

7.1. Beste elkarte batzuekiko harremanak

Galdetegia egindako elkarte gehienek (%94,7) harremanak lantzen dituzte sarritan beste elkarte batzuekin. Harreman horiek lurralde-esparru bereko edo bi lurralde-esparruko elkarten artekoak izan ohi dira. Ildo horretan, elkarten %15,8k harremanak lantzen dituzte tokiko beste elkarte batzuekin, eta elkarten %19,3k lurralde-esparruko beste elkarte batzuekin.

Elkartearen esparrua	%
Herria	15,8
Lurraldea	19,2
Autonomia erkidegoa	1,8
Ez daki/ez du erantzun	57,9
Ez du harremanik beste elkarteekin	5,3
GUZTIRA	100

16. taula. Emakumeen elkarteek zein elkarte motarekin duten harremana.

16. taularen araberako datuetan oinarriturik, emakumeen elkarteek herri- edo lurralde-esparruko elkarteekiko harremanak dituzte, batik bat, eta oso gutxitan autonomia erkidegoa esparrua duten elkarteekin.

Gainera, batzuen eta besteen harremanak ez dira berdinak eta hainbat helburu dituzte. Elkarte gehienek harremanak lantzen dituzte inguruko elkarteekin, ideiak trukatzeko (%42,1), gizarte-kultur jarduerak antolatzeke (%22,8), eta, batzuetan, aldarrikapenak batera egiteko (%5,3).

Elkarte gutxi baina esanguratsu batzuek harreman iraunkorrak dituzte beste batzuekin, eta konfederazio gisa jarduten dute (%10,5). Bestalde, galdetegia egindako elkarten %5,3k adierazi dute ez dutela inolako harremanik beste elkarteekin.

Harremanen helburua	%
Ideiak eta laguntza elkarri ematea	42,1
Gizarte eta kultur jarduerak batera prestatzea	22,8
Konfederazio gisa aritzea	10,5
Aldarrikatze jarduerak batera egitea	5,3
Beste batzuk	5,3
Ez daki/ez du erantzun	7
Ez du harremanik beste elkarte batzuekin	5,3
GUZTIRA	100

17. taula. Beste elkarte batzuekiko harremanen helburuak

7.2. Erakunde publikoekiko harremanak

Elkarte askok eta askok landu ohi dituzte erakunde publikoekiko harremanak, 4.4.3 atalean esandakoaren arabera, elkarte gehienek erakunde publikoen dirulaguntzarik jaso baitute inoiz. Gauza bera ondoriozta daiteke 4.1 atalean, herri erakundeek ondore horretarako lagatako lokaletan jarduten baitute elkarte askok.

Elkarteak eratzeko laguntza maila	(%) Udala	(%) Aldundia	(%) Eusko Jaurlaritza
Muy Adecuado	15,8	7	3,5
Adecuado	43,9	17,5	22,8
Insuficiente	26,3	40,4	26,3
No hay relación	3,5	8,8	19,3
NS/NC	10,5	8,8	19,3
TOTAL	100	100	100

TABLA 18: Percepción desde las asociaciones del grado de colaboración de las instituciones públicas con el asociacionismo de mujeres.

Nolanahi ere den, elkarteek erakundeen gainean duten iritzia ez dator bat, eta batzuetan esaten dute erakundeek ez dutela behar besteko laguntzarik ematen, edo galdetegia egindako elkarteen garapena eta jarduerak ez dituztela errazten. Antza denez, udalek laguntzen diete egokien elkartei jardunbidean; Bizkaiko Foru Aldundiak ez du behar besteko laguntzarik ematen, galdetegia egindako elkarte gehien iritzi, eta Eusko Jaurlaritzaren inguruko iritzia ere antzekoa da, baina horrekiko harremana ez da besteekin bezala landu.


18. taulan ageri diren datuak kontuan hartuta, elkarteek %3,5ek ez du harremanik herriko udalarekin, eta egoten denetan ere, elkarteek %26,3k uste du udalak ez duela laguntza nahikorik ematen elkartearen jarduerak garatzeko. Edozelan ere, elkarteek erdiak baino gehiagok, %59,7k, adierazi dute udalak modu egoki edo oso egokia ematen duela jarduerak garatzeko eta elkartearen helburuei heltzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, elkarte gehien iritzi (%40,4), herri erakunde horrek ez du laguntza nahikorik ematen elkarteek jardunbidea erraztu eta jarduerak garatzeko. Elkarteek %24,5ek, ordea, laguntza egokia edo oso egokia ematen duela uste dute.

Badirudi elkarteek ez dutela harreman handirik Eusko Jaurlaritzarekin. Galdetegia egindako elkarteek bostenaren arabera, harremanik ez dago, eta ia herenak ez dio erantzun galdera horri. Dena dela, elkarteek %26,3k uste dute ez diola laguntza nahikorik ematen elkartegintzari, eta beste batzuek, %22,8k, adierazi dute elkartearen jarduerak egoki edo oso egoki ahalbidetzen dituela.


8.1. Aukera Berdintasuna lantzeko Atala eta Genero politikak.

Galdetegia egindako elkarte gehienek (%77,2) bazuten Bizkaiko Foru Aldundiaren Aukera Berdintasuna lantzeko Atalaren eta Genero politiken inguruko egitasmoaren berri. Datu hori oso garrantzizkoa da, atala sortu baitzen galdetegiak egin baino zortzi bat hilabete lehenago.



4. irudia. Aukera Berdintasuna lantzeko Atalaren gaineko jakintza.


Alabaina, galdetegia egindako elkarteentzen %33,3k besterik ez dute zuzeneko harremanik izan aldi horretan atalarekin, eta, oro har, harremana abiatu da atalak dirulaguntzak emateko deialdia egitean. Segurutzat, arrazoi hori dela-eta, eta atala oraintsu eratu dela kontuan harturik, galdetegia egindako elkarteentzen %36,8k ez diote erantzun atalaren gaineko iritzia eskatzen duen galderari. Edozelan ere, azpimarratu behar dugu galdetegia egindako elkarteentzen %61,4k ontzat edo oso ontzat jo dutela mota horretako atal bat eratzea. Elkarteentzen %1,8k, berriz, txartzat jotzen dute atalaren eraketa.



5. irudia. Elkarteentzen harremanak Atalarekin.

8.2. Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna Lantzeko Programa eta Genero politikak Bizkaian (2000-2003).

Bizkaiko Foru Aldundiak Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna lantzeko lehen foru plana onetsi zuen 2000ko ekainean. Plan horren bitartez, aldundiak konpromisoa hartu zuen gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko, eta, beraz, agiri horrek berebiziko garrantzia du emakumeak gizarte, politika, ekonomia eta kultur esparruetan guztiz txertatzeko lan egiten duten elkarte horientzat. Galdetegia egindako elkarte gehienek (%77,2k) Berdintasuna lantzeko Foru Planaren berri daukate. Oso datu esanguratsua da, batez ere, kontuan hartzen badugu galdetegiak eta BFaren berdintasun-konpromiso eragingarria Bizkaiko biztanleei aurkezteko publizitate kanpaina aldi berean egin zirela; horiez gain, Aukera Berdintasuna lantzeko Atalak planaren ale batzuk bidali zituen garai horretan emakumeen elkarte guztietara. Beraz, argi esan behar dugu agiria herritarrei helarazteko eta emakumeen elkarteetara eskuetartzeko bideak oso eragingarriak izan direla.



6. irudia. Berdintasuna lantzeko planaren gaineko jakintza.

Arlo horretan, elkarte gehienek ontzat jotzen dute plana plazaratu izana: Elkarteen %15,8k oso ontzat jotzen dute, eta %43,9k ontzat. Elkarteen %1,8k, ostera, txartzat jotzen dute plana onartu izana.

Berdintasuna lantzeko Plana duela gutxi onartu den arren, elkarteen %38,6k bakarrik uko egin diote planaren eta edukiaren gaineko iritzia emateari. Aurrekoek ez bezala, elkarte askok ontzat jo dituzte planaren edukiak, helburuak eta ekintzak. Iritzia emateko xedez, elkarteei eskatu zitzaizen Foru Planaren edukia 1etik 10era balioestea, eskolako ohiko kalifikazioaren arabera. Elkarteen %7,3k gaitzuzte eman zioten; %12,3ren arabera, planak gaitzuztea merezi du; %29,8k oso ongi eman diote; eta %12,3k bikain.

8.3. Iradokizunak

Bizkaiko Foru Aldundiaren aukera berdintasuna lantzeko politikari dagokionez, galdetegia egindako emakumeen elkarteek gomendio eta iradokizun batzuk eman dituzte. Oro har, iradokizunak egin dituzten elkarte gehienek oso ontzat jotzen dute plana, baina askotan zalantzak ageri dituzte planak jasotzen dituen ekintzak benetan egingo ote diren, eta honakoak eskatu egiten dituzte: "benetako ekintzak, eta ez paperezkoak soilik". Ekarteen askok nabarmentzen dute alde handia dagoela teoritik praktikara, eta, halaber, salatu egiten dute berdintasuna lantzeko planak taxutzeak ez dakarrela berez ekintza benetakoak eta eragingarriak bideratzea.

"Berdintasuna lantzeko planak perretxikoen modura ageri dira, baina emakumeen egoeraren gaineko esku-hartzea ez da nabaritzen. Arazoa konpontzeko burokraziak sortzea ona da, baina ematen du planek horiek berriro elikatzeke eta ez besterako balio dutela"

Emakumeen elkarte batzuek bazterturik sentitzen dute haien burua plana taxutzean, eta, elkarte horien iritziz, emakumeen elkarteek egindako ekapenen bitartez adostu eta aberastu behar zen agiria. Ildo beretik, elkarte askok uste dute eginahal osagarriak egin behar direla emakumeen elkarteek planaren berri jakiteko, eta argibide-hitzaldiak egitea edo planaren laburpena argitaratzea, ulertzeko modu errazean, plan horren balizko onuradun guztiak planaz jabe daitezten. Iradokizun hori oso argigarria da, ezen erantzun batzuek agerian uzten dute elkarteek ez dakitela zehatz-mehatz plana zein esparrutan aplikatu daitekeen, ezta zer ondorio dakartzan ere. Batzuetan, autonomia edo toki alorreko berdintasun planekin nahasten dute. Horrez gain, elkarte batzuek diote plana jaso dutela, baina edukia eta aplikazio-eremuak zein diren ulertzen zaila gertatzen zaiela.

Askotan, emakumeen elkarteek planaren berri jakin dute dirulaguntzaren bat eskatu dutenean, eta, hortaz, galdetegiak eman dien aukera baliatu dute eskaera bera eta dirulaguntzen eskabidea erraz ditzatela eskatzeko; areago, eskaera-orri errazagoak, edo, hori ezean, elkarte horietako emakumeek paper-lan zailenei aurre egiteko prestakuntza ikastaroak eskatu dituzte.

Elkarte bakan batzuek uste dute plana laburregia dela, eta arlo ugari jorratzen ez dituela. Horri loturik, elkarte batzuen arabera, plana zehatzago idatzi beharko litzateke, ekintzak zabaldu eta aurretiaz ezarri

horiek betetzeko erantzukizuna norena den. Proposamen zehatzetan, aipagarriak dira honako hauek: emakumeek amatasuna baliatzeko dituzten aukeren babes txertatu beharko litzateke planean, ekintza zehatzagoak taxutu emakumeen berdintasuna landa-eremuan bermatzeko, edota landa-eremuko emakumeen berariazko premiak eta interesak aintzat hartzea.

